

Concurso de escaparates '25

Erakusleho txapelketa Basauri



Egun bereziak datoz **herriko merkatarientzat**: Gabonak. Sasoi horretan, are lan handiagoa egiten duzue **denda prestatzeko eta bezeroei ahalik eta zerbitzu onena emateko**. Erakusleioa modu berezian apaintzea ohiko zeregina izango da, ziurrenik, garai horretan, eta Udaletik pentsatu dugu **aparteko ahalegin horrek saria merezi duela**. Horregatik, eta Basauriko Merkatarari Elkartearen laguntzarekin, **Basauriko 2025. urteko Erakusleio Txapelketa** antolatu dugu. Hauexek dira ekimenaren **helburuak**:

- **Diseinua eta sormena sustatzea** erakusleioetan, **bezeroak erakartzeko**.
- Erakusleioak apainduta **gure kale eta auzoetan sortzen den giroa eta animazioa ikusaraztea basauriarrei**.
- **Basauriko dendak herriko sare sozioekonomikoaren funtsezko elementu** direla nabarmentzea.
- Basauriko **merkataritzak biltzen duen talentua eta profesionaltasuna** ikusaraztea eta balioan jartzea.

Gutunaren amaieran dagoen QR kodearen bidez eman dezakezu izena, eta Basauriko 2025. urteko Erakusleio Txapelketaren inguruko informazio osoa kontsultatu. Dena dela, hemen dituzu alderdi garrantzitsuenak, labur-labur:

Sariak

- **1. saria: 450 €, gehi garaikurra**
- **2. saria: 300 €, gehi garaikurra**
- **3. saria: 150 €, gehi garaikurra**

• **Herritarrek bozkaturako saria**: sektoreko profesionalek establezimendua ezagutarazteko egindako bideoa, gehi garaikurra.

Gainera, 50 €-ko bi erosketa-txartel zozkatuko dira, Basauriko saltokietan gastatzeko, herri-bozketan parte hartzen dutenen artean.

Kontuan izan beharreko data eta datu garrantzitsuak:

- **Izen-ematea**: 2025eko abenduaren 9ra arte.
- **Dekorazioa**: izena ematen den egunetik abenduaren 21era arte; nolanahi ere, dekorazioa Gabonetako sasoi osoan uztea gomendatzen dugu.
- **Izen-ematea doan da, eta, gaia, librea**.
- **Herri-bozketa**: abenduaren 9tik 21era.
- **Sari-banaketa**: abenduaren 27an, 20:00etan, Social Antzokian, Bizkaidendak Galaren barruan.

Harremanetarako: escaparate.lehiaketa@gmail.com,
www.basauricomerciantes.com.

www.basauri.eus

eta

Espero dut zure gustuko ekimena izatea. Jaso ezazu agur bero bat.

Isabel Cadaval Vélez de Mendizabal
Ekonomia Sustapen eta Merkataritzako zinegotzia

